

GAUR EGUNGO GASTEIZEN IRAKASTEN ETA ERABILTZEN DEN EUSKARA¹

SARRERA

Euskararen agerpena Arabako lurraldean oso aspaldikoa eta ezaguna da. Hain zuzen ere, Arabako lautada mendebaldeko euskararen sorrera izan zitekeen².

Horretan Gasteiz hiriak rol garrantzitsua jokatu omen zuen; badirudi euskararen hedapenean eta sendotzean Hego Euskal Herrian Gasteizek iragan garaietan paper nagusia izan zuela.

XVI. mendean ere lekukotasuna jasotzen dugu Landucci-ren (eta beste hainbaten) eskutik. Berak aitortzen duenez, herri xehe gasteiztarrak euskara erabiltzen zuen, baina nobleak harrezkero gaztelaniaz aritzen ziren; Gasteizko euskararen galeraren lehenengo zantzuak.

Gauzak horrela, XX. mendean Arabako euskara oso egoera txarrean zegoen. 1973ko galdetegi soziolinguistikoaren emaitzen arabera, 2.000 euskaldun baino gutxiago zeuden Araba osoan eta gehienak herri bakar batean: Aramaion³.

Ukaezina da euskara batua sortu zenetik ikaragarri handitu dela Arabako euskaldunen kopurua. Datuei erreparatuz gero, erraz ohar gaitzke gau eskolak eta ikastolak martxan jarri zirenetik euskaldungo arabarra oso azkar biderkatu zela.

Arazoa da, nonbait, hazkunde hau oso denbora laburrean gertatu dela eta ez da behar bezala aztertu prozesu honek euskara erabiltzaile berriak lortu dituen ala ez. Egia da euskaraz dakiten arabar askoz gehiago daudela, baina datuek ez dute erabileran gorakada handiririk islatzen, ezta benetako euskaldun berri osoak diren ere.

Bestalde, euskara arabarra jatorrian mendebaldekoa izanda ere, Gasteizko eskoletan irakatsi den aldaera euskara batu orokorra izan da. Oraindik ere euskara arabarra bizirik dago, baina bat dator Bizkaiko eta Gipuzkoako aldameneko hizkerekin (mendebaldeko euskalkiaren barruan, sortaldeko azpieuskalkian). Edonola ere, ez da kontuan hartu Gasteizko berreuskalduntze prozesuan.

1 Eskerrak eman nahi nizkieke AEKko Oskar eta Asier arduradunei, IKAKo Imanol teknikariari, Hegoaldeko euskaltegiari eta, oro har, inkestan parte hartu duten guztiei.

2 Zuazo, K. 2012, *Arabako euskara*, Donostia: Elkar.

3 Ibid.

XX. mendearen bigarren erditik aurrera Gasteizko biztanle kopurua ere ikaragarri hazi da, eta bertaratutako etorkinen artean asko eta asko dira Hego Euskal Herriko hainbat bazterretatik etorriak.

Era berean, euskalkidun gasteiztar berriak ugari dira, Arratia, Debagoiena, Goierria edo mendebaldeko Nafarroa sorburu dutenak, besteak beste; gehienak gertuko eskualdekoak.

Etorkizunean euskaldun horien guztien (zahar zein berrien) nahasketa horretatik, euren hartu-emanak euskara hutsean gertatuz, tokiko estandar bat sortuko den ikusteko dago.

Dena dela, euskararen irakaskuntzaren helburua euskara eguneroko bizitzan erabiltzea bada, eredu eraginkor eta iraunkor bat irakatsi eta erabili behar da Gasteizen.

HELBURUA

Ikerketa honen abiapuntua Gasteizko euskaltegietan irakasten den euskara da.

Euskaltegietako ikasleen euskara batua aztertu da, zenbait froga linguistikoren bitartez, jabetze prozesuan dauden gasteiztarren hizkerak zer nolako ezaugarriak dituen jakiteko asmotan.

Hizkera hau euskara batua bada ere, bestelako batuekin alderatuta (aukera bat baino gehiago dituzten ahoskeretan eta egituretan) zertan bereizten den eta ahozko euskaldun zaharren hizkeratik zertan urruntzen den erakutsi nahi izan da.

Gasteizen irakasten eta erabiltzen den euskara "berria", alde batetik, mendebaldeko (zentzu zabalean) ezaugarri gutxi dauzkala eta, bestetik, euskaldun berrien ohiko moldeak dauzkala bilatu nahi izan da.

Horretaz gain, gaurko Gasteizko euskarak bertako ezaugarri propioak dituen ala ez izan da aztergai.

METODOLOGIA

Ikerketa hau burutzeko Gasteizko zenbait euskaltegitako taldeetan bi motatako datuak bildu dira.

Lehenik, ikasleei datu pertsonal gutxi batzuk eskatu zaizkie, euren profil soziologikoa lortze aldera (Beheko taulan ikusi daiteke zein motatako datuak diren).

IZENA	ADINA	LANBIDEA	JAIOTERRIA	EUSKARA IKASI: NON ETA NOIZ	EUSKARAREKIKO HARREMANA
--------------	--------------	-----------------	-------------------	--	------------------------------------

Bigarrenik, zenbait froga linguistikoren bidez ezaugarri fonologikoak, morfosintaxikoak eta lexikoak bilatu nahi izan dira. Atal honetan, inkestatuek bi egiteko nagusi izan dituzte, alegia, hitz solte eta perpaus gutxi batzuk ahoskatzea eta bat-bateko itzulpen soil batzuk egitea. Horretaz gain bi galdera motaren artean aukeratu behar izan dute.

Aztergaiaren ikuspegitik, lau bloketan banatu daitezke froga linguistikoak.

I. Fonologikoak

- ◆ <j>, <g>, <z>, <x>, <ts> eta <tx> grafemen ahoskera neurtu nahi izan da, hitz solteak irakurriaz.
- ◆ Hitz bukaerako <r> eta bokal arteko <g> eta <d> kontsonanteen erortzea edo gordetzea aztertzeko 4 perpaus irakurrarazi zaizkie.
- ◆ Aditz trinkoetan azentuaren kokapena neurtzeko (lehenean edo bigarreanean) bi perpaus.
- ◆ Ezeztapenetan gerta daitekeen ahoskabetzea, aditz jokatuak lehenengo kontsonantean, frogatzeko bi perpaus.

II. Aldaerak (lexikokoak dira baina ahoskatzean gertatzen dira)

- ◆ *den/dan*, *bezala/bezela*, *erraza/erreza*, *hamazortzi/hemezortzi*, *jaitsi/jeitsi* alternantziak aztertze aldera bat-bateko itzulpenak egitea eskatu zaie.

III. Lexikoa

- ◆ *nor/zein*, *nortzuk/nor*, **edun/eduki*, *barru/barne*, *ere/be* aukera lexikoen artean zein erabiltzen duten jakiteko bat-bateko itzulpenak ere eginarazi zaizkie (aukera jakin baten aldeko eragina ez egoteko).

IV. Morfosintaxia

- ◆ Galderetan *al* edo *ala* partikulak erabiltzen dituzten jakiteko zuzenean galdetu zaie bi galdera mota horiek aurkeztuta, zein iruditzen zaien naturalagoa galdetuz.
- ◆ Perpaus mailan, kausa adierazteko *-lako / eta / bait-* aukeren artean zein ateratzen zaien jakiteko bat-bateko itzulpenaren bidez.
- ◆ Perpaus mailan ere, denbora adierazteko *-nean / -la / -larik* aukeren artean zein ateratzen zaien jakiteko bat-bateko itzulpenaren bidez.
- ◆ Partizipioa osatzeko *-ta / -rik / -a* aukeren artean, bat-bateko itzulpena ere izan da tresna.
- ◆ Aditz morfologian, *lagundu* eta *deitu* aditzen inguruan galdetu zaie, ea ditransitibo (Hego Euskal Herrian bezala) ala iragankor (Ipar Euskal Herrian bezala) jokatzeko dituzten. Horretarako ere bat-bateko itzulpena erabili da.
- ◆ Ahalera trinkoan aditzoina ala forma burutua erabiltzen duten jakiteko, berriro ere,

perpaus baten itzulpena eskatu zaie.

Halaber, xehetasun gehiagorekin begiratu nahi izanez gero, lan honen bukaeran galdetegi osoa eranskari gisa dator.

Irakasleei ere froga berberak egin zaizkie, euren euskara ikasleek eredu gisa hartzen duten neurrian horren berri edukitzea baliagarria delako.

Guztiei, ikasleei eta irakasleei eskatu zaizkie ahalik eta erarik naturalenean irakurri eta itzuli ditzatela hitzak eta perpausak.

Banan-banako elkarrizketak grabatuak izan dira, datuak zehatzago jasotzeko.

Esparru nahiko mugatua denez, datuak bere testuinguruan ulertu behar dira, gertatu zitezkeen hutsekin eta gabeziekin, eta hortaz, haietatik atera litezkeen ondorioak orobat mugatuak dira.

Beste ikerketa sakonago baterako utzi behar izan da kaleko jendearen hizkera eta mintzalagun taldeetan erabiltzen direnak aztertzea. Ikas eremuetatik haratago dauden egoera informalgoak eta lagunarteko solasak ikerketa honetatik kanpo gelditu dira, denbora eta baliabide ezagatik.

LAGINA

2016ko otsail eta martxoa bitartean 32 pertsona elkarrizketatu nituen ondorengo euskaltegi hauetan: AEK-ko *Aixkiria* euskaltegian (2 ikasle, 4 irakasle), *Hegoalde* euskaltegian (7 ikasle, irakasle bat) eta IKA euskaltegian (17 ikasle, irakasle bat).

Gorago esan bezala, ikasleek zein irakasleek hartu zuten parte inkestan. Guztira, 26 **ikasle** eta 6 **irakasle**.

Ikasleen artean 18 **emakumezkoak** eta 8 **gizonezkoak**.

Irakasleen artean 4 emakumezkoak eta 2 gizonezkoak.

Ikasle gehienak **gasteiztarrak** dira, Bilboko bi eta Gipuzkoan jaiotako ikasle bat izan ezik.

Irakasleen erdia (6etatik 3) Gasteizen jaiotako dira, beste bi giputz eta nafar bat. Irakasleen artean, 4 euskaldun zahartzat jo genitzake (euskaraz etxean ikasitakoak⁴) eta 2 euskaldun berritatzat⁵.

4 Horietako baten aita euskaldun berria da eta amak ez daki.

5 Horietako bat euskaldun berri goiztiarra, txikitatik ikastolan ikasia, eta bestea berantiarra, helduaroan ikasia.

Euren **adin tartea** 20 eta 55 urte bitartekoa da.

Ikasleei dagokienez, 20-30 urte bitartekoak 13 dira; 31-45 urte bitartekoak 10 dira; 46 urte edo gorakoak, aldiz, 3 soilik.

Batzuk aspalditik egon dira euskararekin harremanetan, besteak oso arestitik. Batez beste, **4 urte daramatzate euskaltegietan ikasten**. EGA mailako ikasleak dira guztiak, edo, beste era batera esanda, hizkuntza jabetze prozesuaren bukaera aldean daude.

Gazteen artean (20-30 urteko adin tartean) **D ereduan** ikasi dutenak 6 dira⁶, **B ereduan** 2 eta **A ereduan** 5.

Hala ere, euskara **bere inguruan** erabiltzen dutenak 26 ikasleetatik 10 dira, erdia baino gutxiago. Hori bai, horietako gehienak (7-ek aitortuta) umeekin batez ere aritzen dira euskaraz.

Euren lanbideari begira, **osasungintzan** lan egiten dutenak 7 dira (horietako 3 psikologo, 1 erizain eta 3 erizain laguntzaile), **unibertsitateko ikasleak** 5, **hezkuntzan** dihardutenak 5, **zerbitzuetan** 3, **administrazioan** 2 eta **bestelakoak** dira gainontzekoak (4).

DATUEN AZTERKETA

Errepara diezaiegun orain bildutako datuei.


Goian aipatutako mugak gorabehera (lagina murrizta dela eta), datu esanguratsu batzuk atera ditzakegu. Lehenik, aipatu behar da ikasleen eta irakasleen hizkeraren ezaugarriak oso bestelakoak direla, espero genezakeen bezala. Irakasleek nahiko talde homoginoa osatzen duten bitartean, ikasleen artean, aldiz, emaitzetan alde handiak sortu daitezke zenbait aldagaien arabera banatzen baditugu (eskola eredu edo erabileraren arabera, adibidez).

Goazen atalez atal ikusten zer nolako emaitzak bildu ditugun.


Ahoskerari dagokionez, desoreka handiak aurkitu ditugu. Arreta berezia merezi duten gertaerak <j>, <z>, <x> eta <tx> grafemek ordezkatzan dituzten hotsetan jasotzen dira.

6 Horietaz gain, badago ikastolan ikasi zuen nagusiago bat.



Beheko irudian ikus dezakegunez, ikasleek joera nabarmena dute <j> **sabaikari** ahozkatzeko, eta irakasleek, ordea, gehienetan **belare**.



Era berean, <z> ikasle gehienek **apikari** ahoskatzen dute, eta irakasle gehienek, aldiz, **lepokari**. Ia ispilu moduko irudia dugu behekoa.



Txistukari sabaikarien sailean ere diferentzia handiko emaitzak lortzen ditugu: ikasleek ez dituzte orokorrean txistukari horiek sabaikari ahoskatzen, eta irakasleek bai.




Hala eta guztiz ere, fonologia arloan zenbait ahoskeratan bat datoz bi taldeak.

Esaterako, <g> frikari ahozkatzen dute, maileguetako <z> ez dute horskari egiten eta <ts> apikari esaten dute gehienek.

Beste ezaugarri fonologiko batzuei begiratuta, bada zer esana.


Ikasle gehienek bigarren silaban kokatzen duten arren, aditz jokatueta azentua aldakortasun handiagoa (lehen edo azken silaban) erakusten du ikasleengan irakasleengan baino.

Edonola ere, oso antzera egiten dute bi multzoek.




Hori horrela bada ere, beste gertaera honetan ikusgai dago joera desberdinak daudela "ez + aditz jokatua" elkarketak ahoskatzean.

Irakasle gehienek aditzeko lehen herskaria ahoskabetzen dute eta ikasleek ez.



Hiztegiaren aldetik, euskara batuan hitz jakin baten aldaera bat baino gehiago eskura daudenean, badirudi ikertutako ikasleen artean nahiko parean daudela aldaera biak.


Aldaera *a*-dunak eta *e*-dunak erkatzen baditugu, ikusiko dugu ikasleen eta irakasleen emaitzen arteko aldea ere nabarmena dela.



Ikasleen aldaerak


Parean badaude ere, *a*-dunak dira nagusi (*errez* izan ezik) ikasleengan.

Irakasleenak, ostera, oso bestelakoak dira.




Irakasleen aldaerak

Baina heldu diezaiegun orain bi aukera lexiko desberdin dauden kasuei. Horietako hiruretan nahiko diferente aukeratu dute ikasleek eta irakasleek.




Ikasleen aukera lexikoak




Irakasleen aukera lexikoak

Ez gara oraindik balorazioetan sartuko (hurrengo atalean emaitzei buruzko azalpenak emateari ekingo diogunez), baina garbi gelditzen da hizkera desberdinetako aukerak direla.

Datuen azterketa bukatze aldera, esan beharra dago **morfosintaxia** atalean alderik txikiena jasotzen dela. Aipagarria da, batez ere, *al* partikula galdetzailearen erabilera.



Aditzetan ez dugu ezustekorik topatzen. Ikasle eta irakasle gehienek *lagundu* eta *deitu* aditzak ditransitibo moduan jokatzen dituzte, eta *edin/ezan* laguntzaileekin batera forma burutua erabiltzen dute (eta ez aditzoina).



Ikasleen ezaugarri morfosintaxikoak (irakasleek antzera)

BEHIN BEHINEKO ONDORIOAK

Datuok ikusita, emaitzak euren testuinguruan kokatuz, azaldu eta interpretatu beharko dira.

Lanaren hasieran adierazi bezala, Gasteizko euskararen ezaugarriak aurkitzea izan dugu helburu. Baina, bada benetan ezaugarri finkorik aztertutako hizkeretan?

Aurreko atalean arreta eskaini ez diegun galdeketetan lagin osoan zehar oso pareko emaitzak bildu ditugu. Horiexek izan litezke Gasteiz euskararen berezko ezaugarri batzuk, nahiz eta bereizle ez izan.

Horien artean, fonologiari begira, <g> [x], <ts> [tʃ], <zer polita> [se polita] ahoskatzea eta aditz trinkoetan bigarren silaban azentua jartzea (*gará*, *gaudé*) egon daitezke. Halaber, gehien-gehienetan hiztunek *den* erabili dute (*dan*-en kaltean), *bezala* (eta ez *bezela*), *barru* (eta ez *barne*) eta *ere* (eta ez *be*) erabili dituzte. Gainera, ikasleen artean *nor/nortzuk* erabat hedatuta daude.

Morfosintaxian, partizipioak egiteko ia aho batez *-ta* erabiltzen dute hiztunek, arrazoia emateko *-lako* eta denbora perpausetan *-nean*. Eta, orobat, ezin dira albo batera utzi *lagundu* eta *deitu* aditzen jokabide ditransitiboa (Nor-Nori-Nork) eta forma burutuaren erabilera *galdu dezakezu* bezalako ahalera eta subjuntiboko perpausetan.

Gauzak horrela, nola azalduko genituzke hiztunen arteko adostasunik ez duten alderdiak?


Puntu honetan, nabarmendu behar dugu elkarrizketatutako hiztun gehienak euskaldun berriak direla eta euren hautuak gehienbat euskaltegian edo eskolan ikasitakoaren arabera egin direla.

Hortaz, antzematen diren joerez hitz egiten badugu, zeren arabera diren zehaztu beharra dago. Alde batetik, ez du ematen adin taldeek garrantzirik dutenik (gehienek bigarren hizkuntza gisa daukatenez), baizik eta noiz hasi ziren ikasten, zenbat denbora daramaten eta zenbateraino erabiltzen duten.

Euskaldun berria izateari hainbat ezaugarri egotzi ahal dizkiogu, hau da, ikasleak alde batera eta irakasleak bestera banatzen dituzten ezaugarriak.

Taulei begiratuta, ikasle eta irakasleen arteko aldea batez ere nabarmena da ahoskeraren aldetik, eta erdararen eragina omen datza bere oinarrian. Ezaugarri fonetiko horiek bata besteari lotuta daudelakoan, taula bakar batean aurkeztuko ditugu jarraian.

Izan ere, irakasleen hizkeran kasik kontrako aukerak islatzen dira.



Euskaldun berrien moldeak ikasleen ahoskeran


Are gehiago, sailkapen bereberan honako hauek ere sartu genitzake:

- *Ez + adizkia*: aditz hasierako herskari ahostuna [ezðu]
- *Edun* aditzaren erabilera aditz nagusi moduan (*eduki*-ren kaltean).


Horietan ere ikasleen multzoaren emaitzak eta irakasleenak oso bestelakoak ziren.

Edonola ere, jakin badakigu ikasleen artean **D eta B ereduetan ikasiak** daudela, eta beraz euskaldun berriak izanda ere, goiztiarrak dira. Zenbait alderdiri erreparatuta, badira banaketa hori egiteko funtsezko arrazoiak. Ikus ditzagun horietako batzuk.

D eta B ereduetan ikasi zutenengan ohikoagoa da <x>-ren ahoskera sabaikaria, gainontzekoetan apikaria den bitartean.




Oso esanguratsua den beste bat hau da: D eta B erduetako askok ezeztapenaren ondoko ahoskabetzea egiten dute, besteek ez bezala.




Hala eta guztiz ere, D eta B erduetakoek ez dute beti bat egiten irakasleen emaitzekin, eta batzuetan hain zuzen ere haiengandik urruntzen dira, gainontzeko ikasleak bainoago.

Euskal <z>-ren ahoskera (hori bai, mendebaldeko hizkeretan erabat galdua dagoena) beti apikari egiten dute D eta B erduetakoek, gainontzekoengan nahiko parean dauden arren.



Euskaldun berri berantiarren partetik hiperkarakterizazioztat jo genezake <z> eta <s> bereizita ahoskatzea, erdaratik aldentzeko ahalegina, beste era batera esanda.


Bestalde, harrigarria bada ere, emaitzen arabera, D eta B ereduakoen sarriago erabiltzen dute edun aditz nagusi moduan besteek baino.




Erabilerari begiratzen badiogu, oso diferentzia txikiak aurkituko ditugu.

Ikasleei galdetu zitzaaien euskara bere inguruan erabiltzen duten, eta horietako zenbaitek baietz erantzun zuten (seme-alabekin bakarrik ez bada ere). Hori horrela, euren euskararen erabilera aitortua den heinean, ez da oso fidagarria, eta horrexegatik, baliteke, datuak desitxuratuta daude.


Erabilera aitortuaren eragin txikia <j>-ren ahoskera ikusi daiteke, non euskara erabiltzen dutenek gehiago ahoskatzen dute [x] edo [j] hitzaren arabera.



Ildo beretik, <s> eta <z>-en arteko bereizketan ere hobeto egiten dute euskara erabiltzen dutenek.



Baina benetan erakusgarri den aldea *edun/eduki* parean topatzen dugu; horretan euskara bere inguruan erabiltzen dutenek *eduki* lehenesten dute, beste guztiek ez bezala.



Joerak azalduta, orduan **non kokatu genezake hizkera hau** euskalkietako isoglosa ezagunetan?

Nora lerratzen da Gasteizko hizkera?

Bada, bere kokapen geografikoari esker, handik eta hemendik elikatu da hizkera hau.

Gipuzkeraren eragina nabarmena da zenbait hiztunengan, eta horrenbestez *erraz/errez* eta *hamazortzi/hemezortzi* lehian agertu zaizkigu datuetan. Gipuzkerari ere dagokio, baina batuaren eskutik hedatu da seguruenez, *al* partikula galdetzailea (Gipuzkoa osokoa ez dena).

Batuaren ekarpen handiagoa morfosintaxian egin bada ere, lexikoan ere gipuzkera ez besteko aukerez hornitu du hizkera hau: *nor, nortzuk, bezala...*

Mendebalde zabala (Gipuzkoa, Bizkaia) / Ekialdea (Nafarroa, Ipar Euskal Herria) ardatzean kokatzen diren isoglosek⁷ honako ezaugarriak barneratuko lituzke:

- ✗ dan / den
- ✗ eduki / edun
- ✓ barru / barne
- ✓ -ta / -rik
- ✓ -lako / bait-
- ✓ -nean / -larik
- ✓ lagundu, deitu Nor-Nori-Nork / Nor-Nork
- ✓ galdu dezakezu / gal dezakezu

8 horietatik 6etan egingo luke bat Gasteizko hizkerak mendebalde zabaleko ezaugarriekin.

Azkenik, goian arakatutako gertaeretatik kanpo agian utzi beharko genituzkeela **egoera formalaren ondorioz** jaso direnak, alegia, [j] ahoskera, [s] ahoskera maileguetako <z>-etan, bokalarteko herskari ahostunak mantentzea (*egin/eduki*, eta ez *ein/euki*), [ezðu] moduko irakurketak eta *edun* aditzaren erabileraren nagusitasuna.

Gogora ekarriko genuke froga guztiak paper baten aurrean, ezezagun batekin eta euskaltegiko gela batean egin zirela.

⁷ Zuazo, K. 2014, *Euskalkiak*, Donostia: Elkar.

HAUSNARKETA

Lan hau borobiltze aldera kezka batzuk plazaratu nahi genituzke.

Hasieratik lelo geneukan azterketa ildoak ez du erantzun zuzenik jaso. Gasteizko euskara nolakoa den saiatu gara erakusten, baina egiazko tokiko baturik ez dagoela onartu beharko dugu.

Datuetan ondo islatu denez, alde handiak daude euskaldun zahar eta euskaldun berrien artean, guztiak gasteiztarrak izanda ere; are gehiago, euskaldun berri goiztiar eta berantiarren banaketa ere agerikoa da.

Argi dago baztertuta jarraitzen duela euskarak Gasteizen eta egoera larri horretatik eratoritzen da bere kohesio falta. Ezagutzaren eta erabileraren alderdiak makal dabilta hirian eta horrek ez du berezko hizkera bat ahalbidetzen. Hala ere, balizko hizkera horren zantzuak ere ikusi ditugu azterketan.

Beste hiriburuetan zerbait sendoago dago euskararen erabilera eta tokiko batuak poliki agertzen ari dira; Bilbon ez da arraroa *be* entzutea; Donostian *det*, *dezu* moduko laguntzaileak barra-barra erabiltzen dira; Iruñean *-en* moduko geroaldiko formak ohikoak dira. Oro har, hiri horiek eredu edo jarraibide garbia dute, aldameneko euskalki bizia, eta darabilten batua berezko ezaugarriez zipriztinduta dago.

Gasteizek muzin egin dio hurbileko (mendebaldeko) euskalkiari eta batu oso orokorra bereganatu du. Euskara batuak erdialdeko euskalkia ardatzat hartu duen arren, aukera lexiko batzuetan mendebaldekoa du jatorri, eta horietan soilik dator bat Gasteizko hizkera mendebaldekoarekin.

Nolabait ere, euskara giputzaren prestigioaren menpe dago Gasteiz, eta bere molde asko sartzen ari dira hiriko hizkeran. Etorrin euskaldunen jatorria anitza da Gasteizen, baina gipuzkoarrek multzo hazia osatzen dute.

Euren eragina mugatua da, baina. Dirudenez, euskaldun zahar asko "uharte euskaldunetan" mugitzen dira Gasteizen, eta euren giro euskaldun jakin horretan soilik erabiltzen dute euskara, ez Gasteizko euskaldun berriekin. Euskaraz bizi dira Gasteizen, eta hein batean nahiko komunitate trinkoak dira, eta beraz ez dute Gasteizko biztanleria osoan eragiten. Horren alboan, mintzalagun taldeak ekimen interesgarria izango litzateke aztertzeke, hor bai nahasten direla euskaldun mota asko.

Gasteizko "euskaldun zahartzat" ikastolan ikasitakoak jo genitzake, baina D eta B ereduaren eraginkortasuna kolokan jarri du ikerketak. Agian multzo horretan aurkituko genuke Gasteizko hizkeraren etorkizunerako hazia.

AHOSKATU ITZAZU MULTZO HAUETAKO HITZAK ETA ESALDIAK

JOAN

JO

JAUZI

JAUN

JENDEA

GEOLOGIA

FILOLOGIA

ENERGIA

IDEOLOGIA

ZORATUTA

ZAUNKA

ZORTEA

SOZIOLOGIA

ZEMENTUA

ITSASOA

LOTSA

OSASUNTSUA

OTSOA

XEHEA

UXATU

XAXATU

GOXOA

KOTXEA

TXORIA

TXERRIA

ZER EGITEN DUZU?

ZER POLITA!

ARIKETAK EGIN DITUT.

ZORTE ONA EDUKI DUT.

ONENAK GARA.

HEMEN GAUDE.

EZ DITUT ARIKETAK EGIN.

NIK EZ DUT ERRURIK.

¡QUÉ BUENO ES!

NO SÉ QUÉ HA PASADO.

LO HE HECHO ASÍ, COMO TÚ.

COMO AITA, SOY CARPINTERO.

LOS EJERCICIOS SON FÁCILES.

18 ARIKETA EGIN DITUT.

HE BAJADO A LA CALLE.

¿QUIÉN ES ÉSE?

¿QUIÉN TE HA DICHO ESO?

¿QUIÉNES HAN VENIDO?

TENGO DOS HIJAS.

TENGO MUCHAS IDEAS.

SE HA METIDO DENTRO DE CASA.

**¡YO TAMBIÉN LO HE HECHO!
TÚ TAMBIÉN ERES ESTUDIANTE.**

**ETORRI AL DA?
ETORRIKO DA ALA?**

**LE HE VISTO CANSADO.
ESTÁ CANSADO.
HA TERMINADO CANSADO.**

PORQUE HA TRABAJADO TODO EL DÍA.

CUANDO LE HE VISTO, ESTABA CANSADO.

TE AYUDARÉ.

TE LLAMARÉ.

PUEDES PERDERLO.